

**AUZOBIDEEN ETA EGUR KARGA-LEKU PUBLIKOEN ERABILERA ARAUTZEKO
ORDENANTZAREN ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA**

- PARTE HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA -

Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua behartzen du araudi proiektu bat prestatu aurretik kontsulta publikoa egitera.

Kontsulta publikoaren helburua da herritarrek eta kontu hauetan zeresana izan dezaketen erakundeek ondorengo puntu hauei buruz zein zer iritzi duten jakitea:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa kontuan hartuta, Auzoak eta Landa garapena Departamenduak Auzobideen eta egur karga-leku publikoen erabilera arautzeko ordenantza onartzeari buruzko arau-ekimenari dagokion alde aurreko kontsulta publikoa abiatzea bideratu zuen.

2022ko apirilaren 8ko 394 zenbakidun Alkate Dekretuz onartu zen aipatu ordenantza kontsulta publikora ateratzea, udaleko barne prozedurari jarriki 20 egun balioduneko epean eta Oñatiko udaleko web atariaren bitartez.

Ekarpenak egiteko epea: 2022/05/24 a arte

Epearen barruan iradokizun bakarra jaso da, norbanako batek egina (2022ko maiatzaren 19ko sarrera-data eta 1924 zk.):

Lehenengoa: azken urteetan ohitura izan da inguruko udalerrietako egurra Oñatiko auzobideak erabiliz ateratzea, horren lekuko, "Txipizaitik atera diren ehunka kamioi. Inguruko herrietan auzobideak erabiltzeko araudia gogorragoa izanda, Oñatitik atera izan dute egurra, aipatu bideetan kalteak eraginez, gerora, Oñatiarrek konpondu behar izaten dituztenak. Hori kontuan izanda, inguruko udalerrietako egurra Oñatiko

bideak erabiliz ateratzea debekatu beharko litzateke edo horrela ez balitz, Oñatiarrek ordaindu beharreko tasaren hirukoitza ordaindu.

Bigarrena: egur sektoreko enpresa batzuk auzoko edo inguruko kargalekuak erabili beharrean, beste auzo batzuetako kargalekuak erabiltzen dituzte. Adibidez, Zubillagako saihesbideko zubi azpiko egur karga-lekura Larraña auzoko egurra ekarriz gero, Matromai aldera doan auzobidetik bi aldiz igarotzen dira (karga-lekura etortzerakoan eta egurra eramaterakoan), aldiz, ez du inongo tasarik ordaintzen. Horrelako praktikak debekatu egin beharko lirateke.

Bide-azpiegiturak erabiltzeagatik ibilgailuei kargak aplikatzeari buruzko 1999/62/EE Zuzentarauaren 7.4 artikulua honakoa xedatzen du “bidesariak eta tasak aplikatuko dira zuzeneko edo zeharkako bereizkeriarik egin gabe garraiolariaren nazionalitatea edo ibilgailuaren jatorria edo helmuga dela eta”. Halaber, bide publiko batetik ibiltzeko debekua ezin da ezarri erabiltzailearen jatorriaren arabera (1978ko Espainiako Konstituzioaren 19.art.), hau da, herritar guztiek daukate Gipuzkoako errepide eta bideetan barrena ibiltzeko eskubidea (Gipuzkoako Errepideen Arau Forala 7/2006, 38.art.).

Gaia aztertu ondoren, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak honako erantzuna ematea adostu du: nahiz eta proposatzen diren neurriak (beste udalerrietako bidaiak debekatu edo tasa bereziak ezarri) baztertzailerak izateagatik ezin diren ezarri, basogintza jarduerak auzobideetan sortzen dituen arazoak berri ematen dute: egur kargalekuen erabilera desegokia eta karga-leku horien sarbideak diren auzobide batzuen gehiegizko erabilera. Udalak auzobide ordenantza berrian egurra kargatzeko leku publikoak arautzeko asmoa du, bertan, azaldutako arazoei irtenbidea emateko arauak proposatuko ditu.

Horrenbestez, kontsidera daiteke ekarpena positiboki baloratu dela, eta, hala badagokio, etorkizuneko ordenantzaren idazketan kontuan hartuko dela.



Oñatin, 2022ko ekainaren 27an

PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOKO TEKNIKARIA